





Nora ez dakizun hori

Nobela lantzeko proposamen didaktikoa

Egileak: Kristina Fernandez eta Antxone Otxandorena

EIBZ 2019

Liburuaren fitxa



Izenburua: *Nora ez dakizun hori*

Idazlea: Irati Jimenez

Argitaletxea: Elkar

Argitalpen data: 2009

Orrialde kopurua: 234

Laburpena

Martin argazkilaria 15 urtez kanpoan izan ondoren, Elias, bere aitaordearen etxera, Bilbora, itzuli da. Bilbon erakusketa bat antolatuko du berak eginiko argazkiekin. Erakusketa aitzakia izanen da, izan ere, horien artean emakume bera azaltzen den 11 argazki misteriotso ditu. Emakume hori nor den jakin nahiko du. Bitartean, Martinek bere haurtzaroa gogoratuko du eta Eliasek ere bere bizitzaren inguruko gogoeta egingen du.

Bestetik, Nora, irati bateko esataria, amaxirekin, Rosarekin, bizi da, bere ama istripu batean hil baitzen. Norak bere amari gertatutakoa gogoratuko du, bera hildako amaren sabeletik bizirik atera zuten. Rosak ere Ameriketara egindako bidaia kontatuko dio bere ilobari eta Nebraskan bizitakoa ere bai. Han amonak ostatua jarri zuen eta bikiak izan zituen.

Bi istorio horiek momentu batean bat egingen dira. Martin eta Eliasek gauero irati programa bat entzuten dute eta esatariari, Norari, hiltzerako abesti egokia aurkitzeko eskatuko diote. Norak egunero irratia entzuteko eskatuko die eta Martinek egunero telefonoz deituko du irratira. Horrela haien artean harreman berezia sortuko da.

Zergatik irakurri liburua

Nora ez dakizun hori liburuan kontatzen den istorioa Sherezadek, bere burua salbatzeagatik, erregeari *Mila eta bat gauean* liburuan kontatzen dizkion ipuinetako bat izan zitekeen. Baina, Irati Jimenek idatzitako liburu hau ez da ipuin bat soilik; ipuinak, ipuinak soilik ez diren bezala. Idazleak liburu honetan sortzen duen mundu literarioan, gure bizitzan bezalaxe, MAITASUNA gertatzen den guztiaren iturburua eta helmuga da.

“Ipuin batzuk inposibleak dira eta errepikatu egiten dira. Hiri batzuk sutan daude eta nik denak ikusi nahi ditut. Mundua bukatzen den leku honetan egingo dudak azken egunean idazten dizut, jakin dezazun ezinezko ipuin baten seme-alabak garela, eta ezinezko ipuin bateko anai-arrebak, eta egunen baten ezinezko ipuin baten aurkituko dugula elkar, ezinezko senar-emazte. Gu ez bagara, guretako beste edonor. Ipuina, maitea, horixe da garrantzitsuena”

Atariko jarduerak

1. Jarduera. *Nora ez dakizun hori*

Helburuak. Ikasleen jarreraren eta aurrezagutzan eragitea:


- *Jarrera:* ikasleengan motibazioa eta interesa piztea.
- *Ezagutza soziokulturala:* literatur lana ulertzeko baliagarri izan daitekeen informazioaz jabetzea.
- *Ezagutza literarioa:* sinbolizazio prozesu baten inguruko gogoeta abiaraztea.
- *Ezagutza literarioa:* liburuaren azalak duen garrantziaz jabetzea.

Hipotesiak egitean, nolabait adierazten dugu ez gaudela erabat ziur diogunarekin. Hipotesiak adierazteko zenbait egitura daude:

- Ustea edo iritzia adieraztekoa (*uste dut ...-(e)la, ... -(e)la deritzot, pentsatzen dut -(e)la, esango nuke.... -(e)la, -lakoan nago...)*
- Zalantza, ziurtasun eza edo probabilitatea adieraztekoa (*segur aski, antza denez, dirudienez, badirudi ...-(e)la, baliteke ...ea, litekeena ... -ea).*
- Indikatiboko geroaldia. (...-ko).
- Ahalerako geroaldia. (...-ke).

Liburu honen azala behatu eta galdera hauek erantzunen dituzue hipotesiak eginez:

- 1.1. Zer iradokitzen dizu izenburuak?
- 1.2. Azalean agertzen dena argazki bat da. Nor ote da argazkiko neska? Non ateratakoa ote da?
- 1.3. Zergatik dago, zure ustez, argazkia txuri-beltzez eta izenburua morez?
- 1.4. Ba al dago erlaziorik argazkia eta izenburuaren artean? Baldin badago, zein da?
- 1.5. Zeri buruzkoa uste duzu izango dela liburu hau?




2. Jarduera. IPUINA GURE BIZITZAN

Helburuak. Ikasleen jarreraren eta aurre ezagutzan eragitea:

- *Jarrera:* ikasleengan motibazioa eta interesa piztea.
- *Ezagutza soziokulturala:* literatur lana ulertzeko baliagarri izan daitekeen informazioaz jabetzea.
- *Ezagutza literarioa:* sinbolizazio prozesu baten inguruko gogoeta abiaraztea.
- *Ezagutza literarioa:* ipuinek gure bizitzan duten funtzioaz jabetzea.

Mila gau eta bat gehiago. Liburu honek badu lotura handia irakurriko duzuen liburuarekin.



Liburu honetaz bertsio anitz egin dira munduko hainbat literaturatan. Begira Patxi Zubizarretak (Erein, 2002) euskaraz egindako bertsio honetan zer dioen aitzinsolasean:

Poesia bat: “Ahoz zein idatziz, zinez bitxia da hitzak egin ohi duen bidea. Testu idatziaren bidez antzinako (...) ahotsa bizi-bizi jaso dezakegu gaur egun. Ozen irakurtzen zuenaren ahotsaren bidez, irakurtzen ez zekitenek, duela zenbat mende Kixote testuarekin gozatu ederra hartzen zuten taberna zuloetan. Mila gau eta bat gehiago jatorri hindu, pertsiar eta arabiarreko pertsonen asmatu zuten, eta mende mende sortu eta osatu zen, ahotik belarrira, ipuin kontalarien bidez (...) Ipuinak ipuinen ondotik, beraz, ipuinak ipuinen barnean. Eta noizbait bakarren batek denak irakurriko balitu, hil egingo litzateke”. (9-12)

2.1. Euskal literaturan horrelakorik dago, hots, ahozko literatura tradizioz dugu?

Entzun hurrengo ipuina: <http://etxegiroan.eus/eu/audioak/haur-literatura-euskaraz/esaten-dute>

2.2. Zure familian kontatzen den pasadizo edo ipuinen bat gogoan duzu? Txikitako ipuinik gogoan duzu?

2.3. Zure ustez, zer erran nahi du azpimarratutako esaldiak?

2.4. Liburuari buruzko informazioa bilatu eta taula osatu.

Generoa	
Non girotua	
Konta ezazu ipuin kontaketak nondik abiatzen diren (Xerezade)	
Nor da liburuko protagonista? Zergatik kontatzen ditu ipuinak?	
Aukeratu Xerezadek kontaturiko ipuin bat	


2.5. Zure ustez, pertsonok beharrezko ditugu ipuinak bizirauteko? Zergatik?

3. Jarduera. *Musikaz blai*

Helburuak. Ikasleen jarreraren eta aurrezagutzan eragitea:

- *Jarrera:* ikasleengan motibazioa eta interesa piztea.
- *Ezagutza soziokulturala:* literatur lana ulertzeko baliagarri izan daitekeen informazioaz jabetzea.
- *Ezagutza soziokulturala:* musikak duen funtzioaz jabetzea.
- *Ezagutza literarioa:* sinbolizazio prozesu baten inguruko gogoeta abiaraztea.

3.1. “A: Der Bilbao Song” da lehen kapituluaren izenburua eta “B: Beharbada Bagdad” da bigarren kapituluaren izenburua. Hona hemen liburuaren aurkibidea:



Gaur egun CDak erabiltzen badira ere, garai batean beste euskarri batzuk erabiltzen ziren musika entzuteko: adibidez, kaseteak edo biniloak. Bilatu horien ezaugarriei buruzko informazioa: euskarri horietan, zer adierazi nahi dute A eta B letrek? *Nora ez dakizun hori aurkibidean ere A eta B letrak erabili dira, zer harreman iradoki dezake? Zergatik?*



3.2. Musikak garrantzia du gure bizitzan? Zein egoeratan? Zergatik?

3.2.1. Entzun BIHOTZEKO FONOTEKA saioko atal hau

<https://www.eitb.eus/eu/irratia/euskadi-irratia/programak/arratsean/audioak/osoa/5847834/audioa-garbine-aranburu-labeko-idazkari-nagusiaren-bihotzeko-fonoteka/>

3.2.2. Zure ustez, maitemintzeko kantak badaude? Biziraupenerako kantak? Kontzientzia esnarazten dutenak? Alaitzen zaituztenak? Negarra eragiten dutenak?

3.2.3. Zuk zein kanta hautatuko zenuke? Zergatik? Egin ezazu 5 kanta duen zerrenda eta aipatu zergatik diren garrantzitsuak zuretzat?

3.3. Liburuaren lehenengo orrietan Cat Stevensen kantaria eta bere abestia azalduko dira eta ondotik maiz azalduko da. Hona hemen abestia eta ingeles irakaslearen laguntzarekin jar ezazu euskaraz.

FATHER AND SON

*It's not time to make a change,
Just relax, take it easy
You're still young, that's your fault,
There's so much you have to know
Find a girl, settle down,
If you want you can marry
Look at me, I am old, but I'm happy
I was once like you are now, and I know that it's not
easy,
To be calm when you've found something going on
But take your time, think a lot,
Why, think of everything you've got
For you will still be here tomorrow, but your dreams
may not
How can I try to explain, when I do he turns away
again
It's always been the same, same old story
From the moment I could talk I was ordered to listen
Now there's a way and I know that I have to go away
I know I have to go*

*It's not time to make a change,
Just sit down, take it slowly
You're still young, that's your fault,
There's so much you have to go through
Find a girl, settle down,
If you want you can marry
Look at me, I am old, but I'm happy
All the times that I cried, keeping all the things I knew
inside,
It's hard, but it's harder to ignore it
If they were right, I'd agree, but it's them you know not
me
Now there's a way and I know that I have to go away
I know I have to go*

3.3.1. Abestia ulertu eta gero, erantzun galdera hauek:

3.3.1.1. Nork nori hitz egiten dio?

3.3.1.2. Zein mezu eman nahi dio?

3.3.1.3. Zein motatako abestia dela esanen zenuke?

4. Jarduera. MAITASUNA...

Helburuak. Ikasleen jarreraren eta aurrezagutzan eragitea:

- *Jarrera:* ikasleengan motibazioa eta interesa piztea.
- *Ezagutza soziokulturala:* literatur lana ulertzeko baliagarri izan daitekeen informazioaz jabetzea.
- *Ezagutza literarioa:* sinbolizazio prozesu baten inguruko gogoeta abiaraztea.

4.1. Zer da maitasuna?

4.2. Maitasun mota hauek definitu. Literaturan edo filmetan horren adibiderik dago?

4.2.1. maitasun erromantikoa:

adibiderik:

4.2.2. maitasun salbatzailea:

adibiderik:

4.2.3. maitasun aldatzailea:

adibiderik:

4.2.4. maitasun interesaturik:

adibiderik:

4.2.5. doako maitasunik:

adibiderik:

4.3. Izaki hauen artean maitasuna bideragarria da? Zergatik?

	neska	mutila	txakurra	otsoa	ardia	katua	txerria	basurdea
neska								
mutila								
txakurra								
Otsoa								
Ardia								
Katua								
txerria								
basurdea								

4.4. Baietz erran duzun kasuetan odol berekoak badira, posiblea al da maitasuna? Posibleak al dira sexu harremanak? Gizarteak onartzen ala gaitzesten al ditu?

4.5. Literaturan ba al dute lekuri harreman-mota horiek?

4.6. Ezagutzen al duzue izaki-bikote horien arteko maitasuna kontatzen duen istoriorik (ipuin, film, kantu...)?

Irakurketa ibilbidea

1. Pasartea. Martin eta Nora

Helburuak. Gaitasun hauek jorratuko dira:

- *Mundu sinbolikoa*: testu literarioan garaturiko eta proposaturiko sinboloen jabetzea.
- *Literatura kodeak*: testuaren egituraz antzematea eta beste arte adierazpenekin erkatzea eta erlazioak sortzea.
- *Diziplinartekotasuna*: testuan agertzen diren adierazpen musikalak antzematea eta gure literatur lanean duten garrantzia edota esanguraz jabetzea.

A: DER BILBAO SONG

BAZKALOSTEA, kafearen gogoa zainetan tiraka eta Eliasek halako baten tira.

— *Tira –piper frijitu berdeen buztanak ditu platerean, bor-bor hasiko da laster kafea–, andrerik ez duzu ekarri. Baina historia xikinen bat edo, behintzat. Agure xikinarentzat. –Benetako erantzuna nahi badu, zazpi egun, zazpi gau, zazpi kale beharko nituzke azalpen guztiak emateko–. Kontutxoren bat egongo da, niri kontatzeko modukoa.*

Ezin dut neure irribarrea ikusi baina badakit nolakoa den. Nekalitik bueltan datorrenean, geza.

— *Baten bat, beharbada. Baten bat bai.*

Mila eta bat kontutxo ditut. Mila eta bat argazki, kontutxoak laguntzeko. Mila eta bat horien artean, hamaika dira garrantzia dutenak(asko, ugari). Baina hamaika baino ez (ez hamar, ez hamabi) loa galarazi didatenak, Bilbora ekarri nautenak, Eliasi erakusten dizkiodanak. Hamaika argazki. Denetan agertzen da ezagutzen ez dudana pertsona berbera. Ez daukat beretzat izenik eta zeu deitzen diot.

Irati Jimenez, *Nora ez dakizun hori*, Elkar, 2019, 19.-20. orrialdeak.

HARA zer gertatuko den hiru hilabete geroago:

Nora etxean dago, amuma Rosaren gosaria prestatzen ari da eta ezin du burutik kendu bart irratian eskatu zioten Cat Stevensen abestia. Postaria etortzen sentitu du eta gosaritan zerbait irakurtzearren, zapatilak jantzi gabe joan da postontzira. Agur egin dio, herritik etxaldera etortzeko aldapa gogorra igo behar duen postariari. Gizona abegikorra da, baina izerdi lamatan dator eta nekatuta. Bat ekarri dizut esan dio, baina gehiago daude.

— *Karrotxorako gehiegi ziren, zeuk pasa beharko duzu postetxetik, guapa.*

Postala da.

Nork bidaltzen duen ez dakar. Norentzat den ikusten duenean bihotzak salto egiten dio bularrean. Eskutitza hogeita hamar urte berandu iristen da, bizirik dagoen norbaitentzat idatzia izan bada, behintzat. Norak ez zuen inoiz ama ezagutu baina postala harentzat da eta dardakadan ditu eskuak irakurtzen duenean. Papera horituta dago, letrak ere beste sasoi batekoa dirudi.

“Ipuin batzuk imposibleak dira eta errepikatu egiten dira. Hiri batzuk sutan daude eta nik denak ikusi nahi ditut. Mundua bukatzen den leku honetan egingo dudana azken egunean idazten dizut, jakin dezazun ezinezko ipuin baten seme-alabak garela, eta ezinezko ipuin bateko anai-arrebak, eta egunen baten ezinezko ipuin baten aurkituko dugula elkar, ezinezko senar-emazte. Gu ez bagara, guretako beste edonor. Ipuina, maitea, horixe da garrantzitsuena”.

Irati Jimenez, *Nora ez dakizun hori*, Elkar, 2019, 24.-25. orrialdeak.

B: BEHARBADA BAGDAD

(...)

Gaur Norak deia jaso du irratian. Programaren azken orduan hartzen ditu beti telefono deiak. Entzuleekin berba egiteko tarteak. Batzuetan abestiak eskatzen dizkiote. Eta eskaini ere bai. Emazteari, lagunei, ezezagunei. Gaur deitu duenak izena eman dio, batzuetan herriaren izena ematen diote soilik, Gernikatik esaten dute edo Ordiziatik. Honek Martin esan du:

—Gabon, Nora –esan dio.

Eta gabon esateko modu horrek –sakon eta hurbil eta dardakadarik gabe– hotzikara eragin dio. Beroaldia masailetan. Ene. Ez daki zergatik.

—Zurekin maiteminduta dagoen lagun baten etxetik deitzen dizut –esan dio–, Martin naiz. Berak deituko zuen baina agure lotsatia da, benetan daukazu maiteminduta, gorritu egiten da zure ahotsarekin. Gauero entzuten zaitu, beti nahi izan omen du zu bezalako neskalagun banpiroa. –Norak ez du ezagutzen baina irribarre egin du kaskoak jantzita, mikrofono aurrean.

—Eta agure hau nor da: zure aita?

—Ez ba. Baina balitz ere, berdin. Elkarrekin bizi gara. Duela hiru egun behintzat. Bidaia luze batetik bueltan nator, Nora.

Luzea izan behar du bai. Hitzen oihartzuna urrunetik dator.

—Galdera bat daukagu zuretzat, agureak eta biok.

Norak segundo baten arnasa hartu du, segundo bakarra baitauka deitu duen entzuleak zer esan lezakeen neurtzeko. Zorua izan liteke, haserretuta bizi diren horretako bat, irratia etxea dela uste duen berbalapikoa, suizidatu nahi duela esan lezake edo ez dakiela taxistaren telefonoa eta ea emango dioten. Goizaldeko ordu biak dira ia, jaikita daudenak egunak exiliatu dituenak dira, iheslariak, insomneak, mozkorrak eta poetak. Pentsatzeko hartu duen segundo horretan, Martinek entzun egin du Nora zertan zebilen eta ia barrez esan dio, ez da galdera zikina, zin dagit.

—Nahiz eta agureak, ziur aski, baten bat baduen buruan.

Iruditu zaio norbaitek telefonoaren atzean, urrunean, protesta egin duela. Edo barre. Edo beste zerbait. Iruditu zaio agure horren itzala ikusten duela, ia etxe horretan dagoela, irratira txantxetan deitu duten ezezagunen etxe horretan.

—Zikina ez bada ez dakit merezi duen baina, tira. Bota.

Barre labur eta benetakoa, telefonoaren beste aldean. Tira, benetakoa iruditu zaio behintzat. Entzuleak ahaztu ditu, Martinek bere galdera egin dihonean. Galdera zaila, orain eta bihar eta datozen hilabeteetan Norak bueltaka eta bueltaka ibiliko duena.

—Hiltzen garenerako abestia bilatzen gabiltza, Nora. Abesti bakar bat, azken arnasa botatzen dugunean bertan barruan geratzeko betiko. Hala esan omen zioten behin agureari, hiltzerakoan abestia entzuten bagaude, bertara hiltzen garela. Baina abesti asko daude eta ez dakigu zein aukeratu. Eta zeuri galdetzen dizugu beraz, agurea zurekin maiteminduta dagoelako eta beharbada horrenbeste denbora ere ez zaigulako geratzen gu bioi erantzuna aurkitzeko.

Irati Jimenez, Nora ez dakizun hori, Elkar, 2019, 41.-42. orrialdeak.

1.1. Noren ikuspuntutik dago kontatua testu bakoitza? Zerk eraman zaitu hori pentsatzera?

1.2. Bada hirugarren testuan honako esaldi hau: “HARA zer gertatuko den hiru hilabete geroago”. Zer esan nahi ote du esaldi horrek? Zein funtzio ote du?

1.3. Bigarren testuan protagonistak postal bat jasoko du. Nork nori bidalitakoa izanen da? Eta noiz bidalia?

1.4. Non kokatuko zenuke Bagdad? Ba al du zerikusirik atariko jardueretan aipaturiko *Mila gau eta bat gehiago* liburuarekin?

1.5. Ba al dago *Mila eta bat gau* liburuaren erreferentziarik testu honetan?

1.6. 1.001 zenbakiaz gain, zein zenbaki azaltzen dira testu hauetan? Zenbaki horiek euskaraz ba al dute esanahi berezirik? Eman adibideren bat.

1.7. Hautatutako lehenengo pasartearen azkenengo zatian hauxe dio protagonistak: **“Denetan agertzen da ezagutzen ez dudana pertsona berbera. Ez daukat beretzat izenik eta zeu deitzen diot.**

“Zeu, nora ez dakizun hori.”

Zein lotura du liburuaren izenburuarekin?

1.8. Bi pasartetan jakin-mina pizten duten bi egoera irudikatzen dira, hainbat ipuin edo istorio asmatzeko bidea ematen dutenak. Zeintzuk dira bi egoera horiek? Zer jakin-min mota pizten dute bi egoera horiek? Zergatik egin aurre egoera horiei ipuinen bidez?

2. Pasartea. Amuma

Helburuak. Gaitasun hauek jorratuko dira:

- Ezagutza literarioa (1): testuan dagoen sinbologiaz ohartu eta interpretatu.
- Ezagutza literarioa (2): narratzailearen eta pertsonaien ahotsak bereizten trebatzea.
- Ezagutza literarioa (3): pertsonaien ahotsak narrazioan txertatzeko bideak (zehar estiloa eta estilo zuzena).
- Diziplinartekotasuna: argazkiek ere izan dezaketena egitura narratiboaz jabetzea.

BESTEENTZAT arraroak ziren. Norarentzat etxeakoak, egunerokoak Rosaren kontakizunak eta esanak eta izanak.

— Amuma –esaten zion txikitan. Bere hitz faboritua zen. A.Mu.Ma. Amumaaaa, ahoa betetzen zion, lotarako gogoa ematen zion, besarkada beroa eta goxoa zen a.mu.ma–, Amuma, nik zergatik ez daukat amarik?

Rosak kontatzen zion amak istripua izan zuela. Oraindik Nora sabelean zeukanen. Kontatzen zion medikuek errepidean bertan amaren azken taupadarekin batera atera ziotela barrutik umea. Kontatzen zion halako umeak negarrik egin gabe jaiotzen direla, ama behin bakarrik ikusiko dutelako eta ez zaielako gustatzen negar baten agurrik esatea. Ez, halako umeek nahiago dute lasai egon, eta horrela, amarekin dauden minutu horretan elkar ezagutzen dute betiko.

— Zu jaio ez bazina, penaren penaz hilko nintzatekeen ni. Penaren penaz, maitea. Zuen ama galduta. Salbatu egin ninduzun beraz, nire ume magiko horrek.

Halako gauzak esaten zizkion Rosak. Halakoak eta bestelakoak.

— Amuma, zure senarra nor zen?

Bostehun aldiz galdera berbera. Bostehun aldiz eta bat aldiz.

— Rosa Busturi naiz ni eta senarrik gabe hilko naiz.

Beti erantzun berbera. Beti Rosa Busturi naiz ni eta senarrik gabe hilko naiz.

— Senarrik gabe nola izan zenituen bikiak, amuma?

Eta beste batek horretarako ez da senarrik behar esango zion, edo ez zion ezer erantzungo, edo hori hazten zarenerako esango zion. Edo gezurren bat asmatuko zuen, izan nuen baina hil egin zen, koittadua. baina Rosa Busturik, senarrik gabe hilko zen andreak, egia santua zor zion hildako amaren sabeletik atera zuten ilobari.

— Ipuin gehiegi irakurtzen nituen, maitea, eta denak sinistu. Eta halaxe geratu nintzen ni haurdun. Horixe da egia, eta beste edozein ipuin, ipuina baino ez da.

Rosak bi ume izan zituen, seme-alaba bikiak. Osaba argazkietan bakarrik ezagutu du Norak. Argazki gutxi, egia esateko. Oso gaztetakoak. Hamazazpi urterekin egin zuen alde osabak etxetik. Betiko. Kearen antzera desagertuta.

Irati Jimenez, *Zeu, nora ez dakizun hori*, Elkar, 2009, (36-37)

2.1. Pertsonaien ahotsak narrazioan bi modutara txerta daitezke:

Estilo zuzena: pertsonaiek esandakoa bere hartan, ezer aldatu gabe jasotzen du narratzaileak. Bi modutara ager daiteke: komatxoaren artean jarritik edo marrazketa erabiliz.

Zehar estiloa: pertsonaiek esandakoa narratzailearen ahotan jartzen denean.

- “Amuma, nik zergatik ez daukat amarik?” galderari honakoa erantzuten dio:

Rosak kontatzen zion amak istripua izan zuela. Oraindik Nora sabelean zeukanean. Kontatzen zion medikuek errepidean bertan amaren azken taupadarekin batera atera ziotela barrutik umea. Kontatzen zion halako umeak negarrik egin gabe jaiotzen direla, ama behin bakarrik ikusiko dutelako eta ez zaielako gustatzen negar baten agurrik esatea.

2.1.1. Jarri erantzuna estilo zuzenean.

2.1.2. Erantzunean egitura bera errepikatzen da (“kontatzen zion”). Errepikapena oinarri duen estiloa osatu du idazleak, baina errepikapen bakoitzean aldaketa txikiak ere badaude. Zeintzuk dira horiek?

2.2. “Amuma, zure senarra nor zen?” galdera ere egiten da narrazioan.

2.2.1. Nork egiten du galdera hau?

2.2.2. Zergatik egiten du galdera bera hainbertzetan? Aipatutako zenbakiak zer iradokitzen dizu? (*Bostehun aldiz galdera berbera. Bostehun aldiz eta bat aldiz*)

2.2.3. Erantzunen artean, amuma Rosak hau esaten dio: “*Ipuin gehiegi irakurtzen nituen, maitea,, eta denak sinistu. (...) Horixe da egia, eta beste edozein ipuin, ipuina baino ez da.*” Zer esan nahi du amuma Rosak erantzun horrekin? Ipuina eta egia. Zein da bien arteko ezberdintasuna?

2.3. Pasarte honetan berriro argazkiak igaro den denborarekin lotuta daude, aurrekoan denen artean 11 garrantzitsu eta oraingoan, zenbat? Zergatik dira garrantzitsuak? Noiz aterata daude?

2.4. Zer-nolako maitasuna da amuma Rosarena? Arrazoitu zure erantzuna.

2.5. Pasarte hau irakurri eta gero zein sentimendurekin lotuko genuke? Zein bizitza eraman du amuma Rosak? Arrazoitu erantzuna.

3. Pasartea. Sara eta Elias

Helburuak. Gaitasun hauek jorratuko dira:

- *Mundu sinbolikoak*: testuan garaturiko eta proposaturiko sinboloek jabetzea.
- *Ezagutza literarioa*: nobelako osagai narratiboak josteko moduez jabetzea.
- *Ezagutza existentziala*: bizitza eta heriotzaren inguruko hausnarketa bideratzea.
- *Diziplinartekotasuna*: testuan agertzen diren adierazpen musikalak antzematea eta gure literatur lanean duten garrantzia edota esanguraz jabetzea.

- *Berandu, umea! Eta afaria, zorritzot?*
- *Kanpoan afaldu dugu.*
- *Dugu? –oraindik komunetik–. Bisita dugu eta ez duzu ekarri nire patata tortilla probatzera?*
- *Piper berdeekin izango da jakina.*

Horixe izango da Nora Busturiri Elias Eskilarapekok bere etxean entzuten dion lehen esaldia.

Eskuak lehortzen dabilela, oraindik Sararen alaba ezagutuko duela jakin gabe, Martinek neskato honekin ezkondu behar luke pentsatuko du. Piper berdeen pentsamenduarekin amaren pentsamendua etorriko zaio. Nebraskarekin akordatuko da, eta Sararekin, beti akordatzeko den bezala, erruduntasuna eta malenkonia nahasturik, berandu baino lehen hilko duen pozoia.

Irati Jimenez, *Nora ez dakizun hori*, Elkar, 2009, 148.-149. orrialdeak

Ez zen abiadura izan.

Irratiak hil zuen Sara.

Poliziak abiadura izan da esan zuen, azkarregi sartu da biribilgunean baina poliziak ez zekien Sarak gidatzen zuenean, irrati programak etengabe aldatzen zituela. Ez zekien arratsalde hartan halako emisora txikiren baten gonbidatu berezia zutela, Portugalen berriemaile izandako kazetari gaztea. Eta ez zekien Sarak kazetaria ezagutu zuela eta horrenbeste urteren buruan haren ahotsa entzutean gidatzea ahaztu zitzaioela. Poliziak tamalez esan zion Rosari, azalpenak ematerakoan, ez zuen distantzia gorde eta horretan arrazoia zeukan. Memoriaren distantzia gehiegi laburtu zuelako Sarak, irratiaren erruz, eta kamioia ikusteko itsutu egin zen.

Sararen azken pentsamendua, xafla beregana etorri zenean, pentsamendu bakarra ez baina pentsamenduen marapiloa izan zen. Heriotik segundo batera, pertsonen moduan pentsatu beharrean, animalien pentsamendua ulertu zuen. Sentimen, sen, sentsazio, dena nahastu zitzaion, argitasunez jantzirik zetorren erabatekotasunean. Ez zuen Elias pentsatu, pentsamendua txiki geratu zitzaioelako. Sentitu egin zuen biki siamdarrarekin batzen zuen organo inbisiblea zein zen, eta, inbisiblea zenez, ez zuen ez hasiera ez amaierarik. Munduko ozena guztiei egin zien barre Sarak, eta Eliasekin lotuta zegoela nabaritu zuen, distantzia guztien gainetik. Eliasekin soilik ez, barruan zeukan umearekin bat sentitu zen, umea bere barruan eta bera haren barruan, betiko. Umea eta ama maitasun bakarrean etorri zitzaizkion bihotzera. Eta ama-Amerika-neba-ume bizimin-herio negar batean hil zen Sara, beldur pozgarritz, misteriorik gabeko isiltasunean.

Eliasek haren heriotzaren berri jakiten duenean, gonbidatuak etxetik joan arte itxaroten du eta gero Sararen pentsamendua beregana ekartzen du, negar zotinka. Ilargia galdu duen otsoa, Deustuko etxe tristean.

Betiko ibiliko zarete esan zion sorginak, bata bestearen usainean, otsokumeak bezala. Piztiak haurra ekartzen duenean, kumeei ahaztu egiten zaie neba-arrebak direla eta goiz banatzen ez badira elkarren beharra sortzen zaie. Eta zuek biok madarikatuta zaudete, beranduegi baita, eta banatuta ere beti-beti ibiliko zarete kondenatuak, elkarren usaina bilatzen. Urrun joango bazina ere, berriz ikusiko ez bazenu ere, alferrik.

Irati Jimenez, *Zeu, nora ez dakizun hori*, Elkar, 2009, 159.-160. orrialdeak.

3.1. Pasarte hauetan pertsonaia berberak izendapen ezberdinekin agertzen dira. Zeintzuk dira? Zure ustez, zergatik egiten du idazleak?

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.

3.2. Zein izan daiteke pertsonaiek duten lotura patata tortilla eta piper berdeak janariarekin?

3.3. Berriz ere, honako esaldi hau azaltzen da 1. pasartean: *“Eskuak lehortzen dabilela, oraindik Sararen alaba ezagutuko duela jakin gabe”*. Geroaldian dago. Zergatik?

3.4. Irratiaren pasartean Elias heriotzarako kantu bila dabil, eta hau dio:
“Hiltzen garenerako abestia bilatzen gabiltza, Nora. Abesti bakar bat, azken arnasa botatzen dugunean bertan barruan geratzeko betiko. Hala esan omen zioten behin agureari, hiltzerakoan abestia entzuten bagaude, bertara hiltzen garela.”

Baieztapen hori hartuta:

3.4.1. Zer entzuten hil da Sara? Beraz, nola hil da?

3.4.2. Non geratu da betiko Sara?

3.5. Nor ote da *Portugaleten berriemaile izandako kazetari gaztea*? Zein lotura ote du Sararekin?

3.6. Sararen heriotza dela eta testuak bi hipotesi ematen ditu. Zure ustez, nola gertatu zen Sararen heriotza?

3.7. Noren ama hil zen istripuz? Heriotza horrek zein sentimendu eragiten dio Eliasi? Zergatik?

Irakurketatik sorkuntzara

1. Jarduera. *Bagdad*

Helburuak. Gaitasun hauek jorratuko dira:

- *Jarrera*:. ikasleak, idazle batek beste idazle baten literatura lanean oinarrituta sor dezakeen ipuinaz, literaturaz ohartaraztea.
- *Ezagutza literarioa*: testuen arteko loturak egiteko gaitasuna lantzea (testuartekotasuna).

MARTIN etxera iristen denean eguna argitzen ari da eta *Eliasen* idatzia mahai gainean dago. Bere azken arnasa bota zuen besaulkia aukeratzen du irakurtzeko. Dokumentua lehenbizi, mila eta bat postalak gero.

“Nebraskan jaio nintzen eta Deustun hilko naiz” esaten du lehen esaldiak. “Baina naizen gizona Bagdaden sortu zen, txikitan amak irakurtzen zizkigun mila eta bat ipuinen orrialdeetan. Asmakizunez beteriko andrea zen ama, bestela ezin uler liteke berrogei urtez izan maitasun historia”.

Irati Jimenez, *Nora ez dakizun hori*, Elkar, 2009, 200. orrialdea.

Jean Cocteauren “Merkatari aberatsaren morroia” narrazioaren itzulpena Bernardo Atxagak egin zuen eta Bernardo Atxagak berak, *Obabakoak* narrazio-bilduman narrazio horren bertsio laburra bildu zuen “Bagdadeko morroia” izenarekin. Bi bertsioek *Mila eta bat gau* bilduma dute oinarri. Hona hemen narrazioa entzungai:

<http://etxegiroan.eus/es/audios/literatura-vasca/merkatari-aberatsaren-morroia>

Bi narrazioak konparatuta, erantzun galdera hauek:

1.1. Narrazio hau kontuan hartuta, nola interpreta daiteke *Nora ez dakizun hori* nobelako baieztapen hau: “Baina naizen gizona Bagdaden sortu zen, txikitan amak irakurtzen zizkigun mila eta bat ipuinen orrialdeetan”?

1.2. Bagdadeko morroiak heriotzari ihes egin nahi dio. Heriotzari aurre egiteko, edo ihes egiteko, zer bide hartzen du Eliasek nobelan?

2. Jarduera. “Lau teilatu gainean”

Helburuak. Gaitasun hauek jorratuko dira:

- *Jarrera:* ikasleek sortzaileen arteko hartu-emanaz jabetuko dira. Besteen lana inspirazio iturria. Gure kulturen indarrean dauden erreferentzia kulturalak aztertzea.
- *Diziplinartekotasuna:* kultur esparru ezberdinetako sortzaileen lanen arteko loturak egitea.

“Lau Teilatu” izeneko bat zen bere gogokoena eta entzun, amuma esanez jarri zion, euskarazko kantu ederra. Orduan, bizitzan lehen aldiz, Rosa garaiezin eta orojakituna- negarrez ikusi zuen. Lasai, laztana esan zion amumak, umea larritu zenean, abestia da, besterik ez. Baina Nora errudun sentitu zen, berak aukeratutako kantuak mina ekarri ziolako amumari.

—Beharrezko negarra nuen, maitea, mesedea egin didazu.

Orduan ez zekien Nebraskan egin gabeko negarrak egiten ari zela Rosa, besoetan hil zitzaion piztia maitea gogoan. Baina konturatu zen musikak horixe zeukala, pertsonen barruan zauria egin eta azalaren azpitik zegoena ateratzeko gaitasuna. Neurri baten, momentu hartan bihurtu zen irrati esatari, bi nota gehi bi hitz lau teilatu zirela konturatzerakoan. Ilargia erdian, eta zu goruntz begira zioen letrak.

Irati Jimenez, *Nora ez dakizun hori*, Elkar, 2009, 214. orrialdea.

2.1. Aurkitu informazioa kantu honen inguruan:

2.1.1. Nork eta noiz sortu zuen kantu hau?

2.1.2. Entzun kantua.

2.1.3. Sortu zenetik hainbat bertsio egin dira. Zein da zuretzat bertsiorik gustukoena?

2.1.4. Hasierako jardueratan aipaturiko zein motatako kanta dela esanen zenuke?

2.1.5. Zergatik eginen ote du amumak negar?

2.1.6. Nor edo zer hil ote zitzaion ba besotan?

2.1.7. Hona hemen kantu bera bi bideo ezberdinetan:

<https://www.youtube.com/watch?v=c8bc3kQF040>

<https://www.youtube.com/watch?v=aDZvpDGx1l0>

Zein izan daiteke bakoitzaren interpretazioa?

Hona hemen aipaturiko kantua:

*Hemen gaude
ta poztutzen naiz
ta ziur zure aita ere bai;
ta zer ondo... zelan dihoa
zure bufanda txuria.*

*Lau teilatu gainean
ilargia erdian eta zu
goruntz begira,
zure keia eskuetan
putzara batekin... putz!
Neregana etorriko da
ta berriz izango gara
zoriontsu
edozein herriko jaixetan.*

*Goxo goxo
kanta egin nazu
Benitoren Maria Solt.
Negarrik ez,
txuri zaude ta malkoak
zure kolorea kentzen dute.*

Lau teilatu gainean...

*Felix, Felix bihar
berriz egongo gara
txanpain apur batekin;
diru gabe baina
izarrak gurekin daude,
piano baten soinuaz.*

Lau teilatu gainean...

3. Jarduera. Bizitza ipuin

Helburuak. Gaitasun hauek jorratuko dira:

- *Jarrera:* sormenerako eta irudimenerako grina piztea.
- *Ezagutza literarioa:* sormen-teknikez jabetzea.

Amaitzeko, zure bizitzan zehar eginiko 11 argazki aukeratuko dituzu eta zure ipuin propioa eginen duzu argazki horiek oinarri edukita.

Zure ipuina edo nobela idazten hasi baino lehen, hona hemen lagungarria izan dakizukeen Irati Jimenezek *Argia* aldizkarian egindako aholku sorta:

Irati Jimenezen idazteko gomendioak:

<http://www.argia.eus/blogak/lander-arretxea/2013/11/18/irati-jimenez-buruan-kritiko-bat-sortzen-zaigun-unetik-barruan-dugun-sortzailea-egurtzen-dugu/>

- Idazteko gogoz bazabiltza seinale gozatzen duzula, edo gozatu izan duzula. Ez ahaztu. Goizero edo astean behin jartzen zarenean, gogoratu hori.
- Idaztea ez da gertatzen parkean zaudela, nahiz eta hori, edo lagunekin ibiltzea, idaztea baino garrantzitsuagoa den. Baina idatzi nahi baduzu, espazio fisiko bat, eta batez ere, zure bizitzan leku bat, eman behar diozu. Ez du zertan handia izan, baina leku bat. Diziplina behar da, beste edozein lanbidetan bezala.
- Hartu aiztoa, baina kontuz. Askotan aiztoarekin gure buruari egiten diogu min. Erabili hitzak mozteko, baina ez zure burua zauritzeko. Gozatu.

Baita hau ere: https://www.youtube.com/watch?v=KI39E1k_dqY

Material osagarria

<https://www.youtube.com/watch?v=nMR1wl02CQU> Iratik liburuari buruz hitz egiten du.

<https://www.youtube.com/watch?v=Azuu3HrG7YE&t=9s> Beteriko liburua saria jaso zuenean egindako parte hartzea.

<http://nontzeberri.eus/rock-nora-ikuskizuna-irati-jimenez-eta-pettiren-eskutik>.

<https://www.gaztezulo.eus/albisteak/irati-jimenez-nora-ez-dakien-bilaketan>

<https://www.111akademia.eus/albisteak/2010/06/17/irati-jimenez-nobela-bukatu-nuenean-nora-ez-zen-nobela-oso-kontinente-zabala-zen>

<http://www.euskonews.eus/zbk/596/elkarrizketa-irati-jimenez-idazlea-nor-naizen-eta-nor-izatera-irits-naitekeen-ezagutzeko-baliagarria-izan-zait-idaztea/ar-0596020001E/>

Yotube: booktrailer-Nora ez dakizun hori <https://www.youtube.com/watch?v=Bg-vs4Za-g>



Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago.

Honakoak egin ditzakezu:

- Partekatu — partekatu, kopiatu eta birbanatu edozein bitarteko edo formatutan.
- Moldatu — nahasi, eraldatu eta horretan oinarrituz sortu edozein xedetarako, baita merkataritza-xedeetarako ere.

Honako baldintzen arabera:

- Aitortu — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.
- PartekatuBerdin — Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.